Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, erabaki hau aldizkari ofizial batean azken aldiz argitaratzen denetik hasita.

Elgoibar, 2007ko maiatzaren 17a.

Alkatea,
M.ª VICTORIA AGUIRREGOMEZCORTA URAIN.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, se podrá interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que ha dictado el acuerdo, en el plazo de un mes desde su publicación en el último de los boletines oficiales.

Elgoibar, a 17 de mayo de 2007.

La Alcalde,
M.ª VICTORIA AGUIRREGOMEZCORTA URAIN.

# Bestelako Xedapenak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 3878

AGINDUA, 2007ko ekainaren 27koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena.

Laguntza-programa honen xedea, hasieratik, gizarte-ekonomiako enpresen bazkide-oinarria gehitzea da, gizarte-ekonomiako enpresa batera sartzerakoan bazkide langileak edo lan-bazkideak, bazkide eta langile izateko, kapital sozialari egin beharreko ekarpenaren ordainketa egitea erraztuz.

Sail honen 2007-2009ko Gogoeta Estrategikoan ateratako ondorioen eraginez, gizarte-ekonomiako enpresetan jendea sartzeko laguntza ematen jarraitzea erabaki da, hasierako faseetan behintzat, enpresaratze hori enpresan sartzeko kapital-ekarpenak egin beharrak baldintzatzen baitu, eta, hortaz, sozietate kooperatibo edo lan-sozietateko forma juridikoa duten enpresei langabeak enpresaratzeko laguntzak emateko ildoa atxiki da, bazkide langile edo lan-bazkide gisa (1. atala), baita bazkide gisa enpresaratzeko ere nekazaritza-kooperatibetara, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basozaintza-ustiategi eta ustiategi mistoetako titularrei dagokienez (2. atala).

1. atalean aurreikusitako laguntzei dagokienez, enpresaratzeko kapital-ekarpenak egin beharrak baldintzatzen du, hasierako faseetan behintzat, gizarte-enpresetara jendea sartzeko aukera; hori dela-eta, egoki iritzi zaio diru-laguntzaren zenbatekoa modulatzen duen

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 3878

ORDEN de 27 de junio de 2007, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan las ayudas para la incorporación de personas socias a empresas de Economía Social.

El presente Programa de Ayudas ha tenido como finalidad desde sus inicios incrementar la base societaria de las empresas de Economía Social facilitando el desembolso de la aportación al capital social de la entidad que debe hacer la persona socia trabajadora o socia de trabajo al incorporarse a una empresa de Economía Social, para adquirir la condición societaria, inescindible de la de trabajador/a.

Fruto de las conclusiones a las que se ha llegado en la Reflexión Estratégica 2007-2009 de este Departamento, se ha considerado, mantener la ayuda a la incorporación de personas a empresas de Economía Social, al menos en sus estadios iniciales, ya que esta incorporación se ve condicionada por la necesidad de hacer aportaciones de capital para incorporarse a la empresa, por lo que se continúa con la línea de otorgar ayudas por la incorporación de personas desempleadas a empresas con forma jurídica de Sociedad cooperativa o laboral, en calidad de personas socias trabajadoras o de trabajo (Sección 1.ª) y por la incorporación como personas socias a cooperativas agrarias, de titulares de explotaciones agrícolas, ganaderas, forestales y mixtas (Sección 2.ª)

En lo que respecta a las ayudas previstas en la Sección 1.ª se debe señalar que la incorporación de personas a empresas de Economía Social, al menos en sus estadios iniciales, se ve condicionada por la necesidad de hacer aportaciones de capital para incorporarse a la em-

eskala bat ezartzeari, gizarte-ekonomiako enpresaren tamaina kontuan izanda enpresa eratu denetik lehen urtean. Hau da, gehiago saritzen da dimentsio txikiko eta sortu berriak diren gizarte-ekonomiako enpresetara sartzea, gehienez 5 urteko antzinatasuna eta 100 lagun biltzen dituztenak. Bestalde, aurreko urteetan bezala, zenbateko osagarri batzuk emango dira enpresaratutako pertsona talde behartsu bateko kide bada.

Era berean, aurten, langabezialdia 3 hilabetera murriztu da, laguntza horiek baliatzeko aldez aurreko baldintza gisa, eta horrela eskakizun hori sail honetako beste zuzendaritza batzuetan eskatzen denarekin parekatu da.

Kontuan hartzekoa da oraingoan ere minusbaliatuek bazkide langile edo lan-bazkide gisa enplegua lortzeko duten zailtasuna, enpleguko zentro berezi kreditatu batetik badatoz eta horrelako zentro batean lanean hastekoak badira, bazkide langile mugagabe gisa, zentro horiek ere gizarte-ekonomiako enpresa baitira. Kasu horretan, ez da eskatuko aldez aurreko langabezialdi bateko baldintza betetzea, ez eta antzinatasunarekin edo enpresaratzen den gizarte-ekonomiako enpresaren (enpleguko zentro berezia) langile kopurua ere.

Agindu honen bigarren atalean -nekazaritza-kooperatibetan sartzeko laguntzei buruzkoa- egoki iritzi zaio nekazari gazteak enpresaratzeko laguntza bultzatzeari, lehen sektorean txerta daitezen edo bertan jarrai dezaten.

Horren ondorioz, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren 2007ko ekitaldirako Aurrekontu Nagusiak onartzen dituen abenduaren 28ko 9/2006 Legea onartu denez, eta Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiak azaldutakoa entzunda, honako hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Agindu honen xedea Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bidez, 2007ko ekitaldirako eman ahal izango dituen diru-laguntzak arautzea da. Laguntza horiek honako helburu hauek izango dituzte:

a) Langabeak enpresaratzea, betiere dagokion enpleguko zerbitzu publikoan langabe gisa erregistratuta badaude, sozietate kooperatibo edo lan-sozietateko forma juridikoa duten enpresetara, bazkide langile edo lan-bazkide mugagabe gisa. Langabe gisa erregistratuta egotearen eskakizun hori ez zaie eskatuko agindu honetako 3.a artikuluaren azken paragrafoan aipatzen diren pertsonei.

b) Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ustiategi zein ustiategi mistoetako titularrak nekazaritza-kooperatibetara bazkide gisa sartzea.

presa; por ello, se ha estimado conveniente establecer una escala que module la cuantía de la subvención, teniendo en cuenta el tamaño de la empresa de economía social durante el primer año a partir de la constitución de la empresa. Es decir, se prima más la incorporación en empresas de Economía Social de dimensión reducida y de reciente creación, con una antigüedad menor de 5 años y de menos de 100 personas. Por otra parte, como en años anteriores, se mantienen unas cuantías suplementarias si la persona incorporada es de un colectivo desfavorecido.

Asimismo, el presente año, se ha acomodado -rebajando a 3 meses- el período de desempleo como requisito previo para optar a estas ayudas, igualando dicho requisito al que se pide en otras Direcciones de este mismo Departamento.

También se sigue teniendo especialmente en cuenta, la dificultad de acceso al empleo como personas socias trabajadoras o de trabajo de las personas discapacitadas que provienen y pasen a trabajar, con la condición de persona socio trabajadora indefinida, en un Centro Especial de Empleo acreditado, el cual es una empresa de Economía Social. En este supuesto se excepciona el requisito previo de un periodo de desempleo, y la antigüedad o número de trabajadores de la empresa de economía social (Centro Especial de Empleo) a la que se incorporan.

En la sección segunda de esta Orden, de ayudas a la incorporación a cooperativas agrarias, se ha estimado necesario impulsar la ayuda a la incorporación de personas agricultores jóvenes, para que se inserten o permanezcan en el sector primario.

En su virtud, habiéndose aprobado la Ley 9/2006, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2007, y oído el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto de la presente Orden es la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, podrá otorgar, durante el ejercicio 2007, para:

a) La incorporación de personas desempleadas, que estén inscritas como desempleadas en el correspondiente Servicio Público de Empleo, a empresas con forma jurídica de Sociedad cooperativa o laboral, en calidad de personas socias trabajadoras o de trabajo de duración indefinida. Dicho requisito de inscripción como desempleada no será exigible a aquellas personas a que se refiere el artículo 3.a) último párrafo de esta Orden.

b) La incorporación como personas socias a cooperativas agrarias, de titulares de explotaciones agrícolas, ganaderas, forestales y mixtas.

1. ATALA
LANGABEAK BAZKIDE GISA ENPRESETAN SARTZEKO LAGUNTZAK

*2. artikulua.–* Onuradunak.

Lan-sozietateren batean nahiz lan elkartuko sozietate batean, edo lan-bazkide legez beste era bateko kooperatibetan bazkide langile gisa sartzen diren langabeek jaso ahal izango dituzte atal honetan arautzen diren laguntzak, betiere 5 urte pasatu ez badira erakundea eratu denetik edo gizarte-ekonomiako erakunde bihurtu denetik -langabe minusbaliatuei ez zaie baldintza hori ezarriko-, eta bazkidea erakundera sartzen denean erakunde horretako bazkide langile edo lan-bazkide finkoak 100 baino gehiago ez badira. Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen lantokiren batean sartu beharko dira langabe horiek.

*3. artikulua.–* Eskakizunak.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, pertsona onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Langabe gisa erregistratuta egotea dagokion enpleguko zerbitzu publikoan, gutxienez hiru hilabeteko antzinatasunarekin.

Antzinatasunak etenik gabekoa beharko du izan eta onuraduna erakunderen batean bazkide langile edo lan-bazkide gisa sartzen denean bukatuko da. Baldintza hori Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legean arautzen den probaldiaren hasiera-datan bete beharko da, halakorik badago.

Laneratze-enpresa batean lan egindako denbora amaituta sartzen diren pertsonen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den baldintza betetzeko, laneratze-enpresa horretan lanean hasi aurreko unea hartuko da kontuan, antzinatasunari dagokionez.

Enplegu-zentro berezietatik datozen minusbaliatuak gizarte-ekonomiako erakunde batean era iraunkorrean sartzen badira ez dute bete beharko, laguntza jasotzeko, dagokion enpleguaren zerbitzu publikoan langabe gisa izena emanda egoteko baldintza, kontuan izanda gizarte-ekonomiako erakunde hori minusbaliatuek zerbitzuak ematen zituzten enpleguko zentro berezi bera izan daitekeela.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, minusbaliatuak izango dira gutxienez % 33ko baliaezintasuna onartuta duten urritu fisiko, psikiko edo/eta sentsorialak.

b) Eskubide osoarekin bazkide langile nahiz lan-bazkide finko moduan 2006ko abuztuaren 1etik eta 2007ko irailaren 15era bitartean sartzea, bi egun horiek ere barne direla.

SECCIÓN 1.ª
AYUDAS PARA LA INCORPORACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS

*Artículo 2.–* Personas beneficiarias.

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas reguladas en esta Sección, las personas desempleadas que se incorporen como socias trabajadoras a una Sociedad laboral o a una Cooperativa de trabajo asociado, o como socias de trabajo en otra clase de cooperativas, siempre que, salvo en el caso de las personas discapacitadas, no hubiesen transcurrido más de 5 años desde la fecha de constitución de la entidad, o la transformación de la misma en entidad de economía social, y que en el momento de la incorporación a la entidad la misma cuente con un número de socios trabajadores o de trabajo, de carácter indefinido que no supere los 100. La incorporación se deberá realizar en un centro de trabajo de la Comunidad Autónoma Vasca.

*Artículo 3.–* Requisitos.

Para acceder a la ayuda, las personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar inscrita como desempleada en el correspondiente Servicio Público de Empleo, con una antigüedad mínima de tres meses.

La antigüedad deberá ser ininterrumpida e inmediatamente anterior a su incorporación como persona socia trabajadora o de trabajo de carácter indefinido a la entidad. El cumplimiento de este requisito se referirá, si lo hubiere, a la fecha de inicio del periodo de prueba regulado en la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.

En los supuestos de personas que se incorporen una vez finalizado el tiempo de trabajo en una empresa de inserción el cumplimiento de los requisitos a que se refiere el apartado anterior se referirán al momento inmediatamente anterior al inicio de dicho trabajo en la empresa de inserción.

Las personas que tengan la condición de discapacitadas y que, provenientes de centros especiales de empleo, se incorporen a una entidad de economía social con carácter permanente, pudiendo ser la entidad de economía social el mismo centro especial de empleo donde venían prestando servicios, no será requisito para acceder a la ayuda el estar inscritos como desempleados en el correspondiente Servicio Público de Empleo.

Se entiende por persona con discapacidad a los efectos de lo establecido en el párrafo anterior, a aquella que esté afectada por deficiencias físicas, psíquicas y/o sensoriales y tenga reconocida una minusvalía, como mínimo, del 33%.

b) Adquirir la condición de persona socia trabajadora o de trabajo de pleno derecho con carácter indefinido, entre los días 1 de agosto de 2006 y 15 de septiembre de 2007, ambos incluidos.

c) Bazkide gisa 3 urte gutxienez irautea, sartzen denetik hasita, ekarpena -diruz lagundutako kopurua behintzat- galtzea dakarten azkentze-kasu, likidazio-kasu edo lan- edo kooperatiba-izaeraren galera-kasuetan izan ezik.

*4. artikulua.*– Diru-laguntzen zenbatekoa eta zenbateko hori erabakitzeko irizpideak.

1.– Oro har, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak mila eta bostehun (1.500) euro emango dizkie onuradunei 3.a artikuluan ezarritako eskakizunei jarraiki.

2.– Dena den, diru-laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da honako kasu hauetan:

a) Bi mila (2.000) euro gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko, eta betiere urtebete baino gehiago igaro ez bada enpresa eratu denetik eta gizarte-ekonomiako enpresa horrek 50-100 bazkide langile edo lan-bazkide baditu.

b) Bi mila eta bostehun (2.500) euro gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko, eta betiere urtebete baino gehiago igaro ez bada enpresa eratu denetik eta gizarte-ekonomiako enpresa horrek 11-49 bazkide langile edo lan-bazkide baditu.

c) Hiru mila (3.000) euro gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko, eta betiere urtebete baino gehiago igaro ez bada enpresa eratu denetik eta gizarte-ekonomiako enpresa horrek 10 bazkide langile edo lan-bazkide baino gutxiago baditu.

3.– Lan-bizitzan sartzerakoan duen egoeraren arabera, aurreko paragrafoen ondorioz lortutako oinarrizko kopuruak hirurehun (300) eurora arteko igoera izango du hurrengo idatz-zatietan aipatutako kontzeptuetako bakoitzerako, eta metatu ahal izango da:

a) Emakume izatea.

b) Minusbaliatua izatea, hau da, urritu fisiko, psikiko edo/eta sentsoriala izatea eta, gutxienez, % 45eko ezintasuna onartuta edukitzea.

c) Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak espetxeei buruz izenpetutako hitzarmena gogoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate kooperatibo edo lan-sozietateetan bazkide gisa sartutako hirugarren graduko presoak eta baldintzapean aske utzitakoak izatea.

d) Guraso bakarreko familiako aita edo ama izatea, hau da, ordaindutako jarduerarik egiten ez duten seme-alaba bat edo batzuk haren mende izatea.

e) Genero-indarkeriaren biktima izan diren pertsonak, eta egoera horretan daudela kontuan hartuko da

c) Permanecer como persona socia durante un período mínimo de 3 años desde que adquirió tal condición, salvo aquellos supuestos de extinción, liquidación o pérdida de la condición de sociedad laboral o cooperativa, que den lugar a la perdida de la aportación, al menos en la cantidad subvencionada.

*Artículo 4.*– Cuantía de las subvenciones y criterios para su determinación.

1.– Con carácter general, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social concederá mil quinientos (1.500) euros a las personas beneficiarias de acuerdo con los requisitos establecidos en el artículo 3.a).

2.– No obstante, la cuantía de la subvención será la siguiente en estos supuestos:

a) Dos mil (2.000) euros para la incorporación en empresas de economía social, siempre que no haya transcurrido más de un año desde la fecha de constitución de la empresa, y dicha empresa de economía social tenga entre 50 a 100 personas socias trabajadoras o de trabajo.

b) Dos mil quinientos (2.500) euros para la incorporación en empresas de economía social, siempre que no haya transcurrido más de un año desde la fecha de constitución de la empresa, y dicha empresa de economía social tenga entre 11 a 49 personas socias trabajadoras o de trabajo.

c) Tres mil (3.000) euros para la incorporación en empresas de economía social, siempre que no haya transcurrido más de un año desde la fecha de constitución de la empresa, y dicha empresa de economía social tenga menos de 10 personas socias trabajadoras o de trabajo.

3.– Atendiendo a las circunstancias de su integración en la vida laboral, la cantidad base obtenida con arreglo a los apartados anteriores, se incrementará hasta en trescientos (300) euros por causa de cada uno de los conceptos señalados en los apartados siguientes, pudiendo tener un carácter acumulativo:

a) Ser mujer.

b) Tener la condición de persona discapacitada, entendiendo como tal a aquella persona que esté afectada por deficiencias físicas, psíquicas y/o sensoriales, y reconocida una minusvalía, como mínimo, del 45%.

c) En atención al Convenio Marco entre el Gobierno Vasco y el Ministerio de Justicia en materia penitenciaria, tener la condición de personas internas en tercer grado y de personas liberadas condicionales que se incorporen como personas socias trabajadoras o de trabajo en una Sociedad cooperativa o laboral.

d) El padre o la madre de una familia monoparental, entendiéndose por tal aquella persona que tenga a su cargo uno o varios hijos y/o una o varias hijas que no desempeñen actividad retribuida.

e) Personas que hayan sido víctimas de violencia de género entendiéndose que se encuentran en esta situa-

haiek eta haien seme-alabek indarkeria fisiko edo psikikoaren biktima izan badira, ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana dela medio modu egonkorrean harekin lotuta egon den edo lotuta dagoen pertsonak eragindakoa bada, betiere gertakari horiek genero-indarkeriaren biktimak babesteko aginduarekin egiaztatu badira, edo ministerio fiskalaren txostenaren bidez, non jasota dagoen zantzuen arabera salatzailea genero-indarkeriaren biktima dela genero-indarkeriako gertakariek eragindako babesteko agindua edo kondena-epaia ematen den bitartean.

f) Gizarteratze- eta laneratze-prozesua laneratze-enpresa batean bukatu dutenak abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuan arautatakoak; horren arabera laneratze-enpresen kalifikazioa arautzen da, horietara sartzeko prozedura ezartzen da eta laneratze-enpresen erregistroa sortzen da, betiere sozietate kooperatibo edo lan-sozietaterako sartze hori prozesua amaitu ondorengo lehen hamabi hilabeteen barruan gertatzen bada.

g) Terrorismo-ekintzen biktimak izan diren pertsonak, irailaren 24ko 214/2002 Dekretuko III. kapituluko II. tituluak horien laneratzea sustatzeko ezarritakoaren arabera -dekretu horrek arautzen du terrorismoaren biktimei laguntzeko programa-, eta terrorismo-ekintzen biktimen seme-alabak eta ezkontideak, biktima hori hil bada edo ordaindutako jarduera egitea galarazten dion ezintasuna badu.

h) Toxikomano ohiak (alkoholiko eta drogazale ohiak), hau da, agindu honetan aurreikusten diren laguntzen ondorioetarako, lan-talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio- eta desohitze-faseak gaindituta etengabeko tratamenduan sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonak, lanaren bitartez gizarteratzeko programa batean sartzea interesgarritzat jotzen bada.

4.– Ematen den diru-laguntza ezin izango da, inola ere, handiagoa izan onuradunak, dagokion sozietate kooperatiboan edo lan-sozietatean bazkide gisa sartzerakoan egindako kapital-ekarpena baino, gehi sarrerakuota edo jaulkipen-prima.

Sozietate kooperatiboak edo lan-sozietateak eratzen diren kasuetan, derrigorrezko ondorengo ekarpenak ere diruz lagundu ahal izango dira, betiere sozietatearen eratzea eta ekarpenak 2006ko abuztuaren 1etik 2007ko irailaren 15era bitartean egin badira.

Edonola ere, kapital-ekarpen hori benetako diruekarpena izan behar da eskatzailearen aldetik, eta ez da kontuan hartuko lagapen, dohaintza edo doaneko bestelako formularen bidez egindako ekarpena edo ekarpen zatia.

ción cuando éstas o sus hijos y/o hijas hayan sido víctimas de violencia física o psíquica, ejercida por el cónyuge o por la persona que esté o haya estado ligado a ella de forma estable por análoga relación de afectividad, siempre que estos hechos hayan sido acreditados con la correspondiente Orden de protección de las víctimas de la violencia de género, informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de que la persona denunciante es víctima de violencia de género en tanto se dicta la orden de protección, o sentencia condenatoria por hechos constitutivos de violencia de género.

f) Personas que hayan finalizado su proceso de inserción socio-laboral en una empresa de inserción, reguladas en el Decreto 305/2000, de 26 de diciembre, por el que se regula la calificación de las empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y se crea el registro de empresas de inserción, siempre que la incorporación a la sociedad cooperativa o sociedad laboral se produzca dentro de los doce meses posteriores a la finalización del mencionado proceso.

g) Personas que hayan sido víctimas de actos de terrorismo, en los términos que a los efectos de fomentar su inserción laboral establece el Capítulo III Título II del Decreto 214/2002, de 24 de septiembre, por el que se regula el Programa de Ayudas a las Víctimas del Terrorismo, así como los hijos e hijas y el cónyuge de una víctima de acto terrorista cuando ésta hubiere fallecido o resultara en situación de invalidez que le impidiese el desempeño de una actividad retribuida.

h) Personas extoxicómanas (exalcohólicas y exdrogadictas), considerando como tales a los efectos de las ayudas previstas en esta Orden, a aquéllas que, habiendo superado a juicio del equipo terapéutico correspondiente las fases de desintoxicación y deshabituación y llevando más de seis meses de tratamiento continuado, se considere de interés su adscripción a un programa de reinserción social a través del trabajo.

4.– En ningún caso la subvención otorgada podrá sobrepasar el capital suscrito, más la cuota de ingreso o la prima de emisión, por la persona beneficiaria en el momento de su incorporación como persona socia trabajadora o de trabajo en la sociedad cooperativa o laboral correspondiente.

En los supuestos de constitución de Sociedades cooperativas o laborales podrá subvencionarse, además, las sucesivas aportaciones obligatorias, siempre que la constitución de la Sociedad y las aportaciones se hayan realizado entre los días 1 de agosto de 2006 y 15 de septiembre de 2007, ambos incluidos.

En todo caso, la suscripción de capital debe suponer un desembolso económico efectivo para la persona solicitante, excluyéndose la aportación o aquella parte de la misma, obtenida por cesión, donación o por cualquier otra fórmula a título gratuito.

*5. artikulua.*– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan araututăko diru-laguntzak bateragarriak dira arrazoi eta xede beragatik bestelako administrazioek edo erakunde publikoek eman ditzaketen bestelako laguntzekin. Edonola ere, diru-laguntzen zenbatekoa ez da agindu honetako 4. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako gehienezko zenbatekoa baino handiagoa izango.

2.– Agindu honen bidez lortutako laguntzak beste administrazio edo erakunde publiko batzuek xede eta helburu berarekin emandakoekin batera jasotzen baditu onuradunak, eta laguntza horiek guztiak batuta laguntzaren gai den jardueraren kostu osoa, edo agindu honetako 4. artikuluko 4. idatz-zatian aurreikusitako gehieneko zenbatekoa, gainditzen bada, gaindikin hori bateraezina dela adieraziko da, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eman beharreko laguntza gutxitu egingo da.

3.– Agindu honek ematen dituen laguntzak eta ordainketa bakarreko langabeziako prestazioa (langabeziaren kapitalizazioa) batera jasotzen direnean, eta bien artean metatutako zenbatekoa agindu honetako 4. artikuluko 4. idatz-zatian aurreikusitako gehienekoa baino handiagoa denean, gaindikin hori bateraezina dela adieraziko da, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eman beharreko laguntza gutxitu egingo da.

4.– Langabeziaren kapitalizazioagatik edo xede berarekin lortutako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarengatik jasotako kopuruak sarrera-kuota ordaintzeko erabiltzen badira, hasierako ekarpenerako erabilitako gaindikina agindu honetan zehaztutako laguntzarekin batera joango da, lehen adierazitakoaren arabera.

2. ATALA
NEKAZARITZA KOOPERATIBETAN SARTZEKO LAGUNTZAK.

*6. artikulua.*– Onuradunak.

1.– Atal honetan araututăko laguntzen onuradun izan ahalko dira nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ustiategi edo ustiategi mistoetako titularrak, betiere beren kasa eta zuzenean egiten badituzte, ohiko eta funtsezko bizibide gisa, ustiategi hori ustiatzeko beharrezkoak diren jarduerak, eta bazkide gisa sartzen badira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-kooperatibetan, betiere jarduera horietan 5 urte baino gehiagoko antzinatasuna ez badute.

2.– Era berean onuradun izan daitezke, ustiategi horien titular izanik nekazaritza-jarduera lanaldi partzialean garatzen dutenak.

*7. artikulua.*– Eskakizunak.

Eskaerak egiteko honako baldintza hauek bete beharko dira:

*Artículo 5.*– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1.– Las subvenciones reguladas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, con el mismo objeto y finalidad, pudieran ser otorgadas por esta u otras Administraciones o Entes públicos. En cualquier caso el importe de las subvenciones no podrá superar el importe máximo previsto en el párrafo 4 del artículo 4 de esta Orden.

2.– Cuando las ayudas previstas en la presente Orden concurran con cualesquiera otras que por el mismo objeto y finalidad perciba la persona beneficiaria de esta u otras Administraciones o Entes públicos, si la suma de las mismas superase el importe máximo previsto en el apartado 4 del artículo 4 de esta Orden, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la ayuda a conceder por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

3.– Cuando las ayudas otorgadas por la presente Orden concurran con la prestación por desempleo en su modalidad de pago único (capitalización del desempleo) y el importe acumulado de ambas exceda del tope previsto en el apartado 4 del artículo 4 de esta Orden, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la ayuda a conceder por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

4.– Si las cantidades obtenidas por capitalización del desempleo o por cualquier otro tipo de subvención o ayuda otorgada, con el mismo objeto y finalidad, por esta u otra Administración Pública o Ente público o privado, se imputasen al pago de la cuota de ingreso, el excedente aplicado a la aportación inicial concurrirá con la ayuda fijada en la presente Orden en los mismos términos fijados en el párrafo anterior.

SECCIÓN 2.ª
AYUDAS PARA LA INCORPORACIÓN A COOPERATIVAS AGRARIAS

*Artículo 6.*– Personas beneficiarias.

1.– Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas reguladas en esta Sección, las personas titulares de explotaciones agrícolas, ganaderas, forestales o mixtas que, realizando de forma personal y directa, como medio habitual y fundamental de vida, las actividades necesarias para la explotación de aquéllas, se incorporen como personas socias a cooperativas agrarias de la Comunidad Autónoma Vasca, siempre que no hayan desarrollado estas actividades con una antigüedad de más de 5 años.

2.– También podrán ser beneficiarias las personas titulares de dichas explotaciones que desarrollen la actividad agraria a tiempo parcial.

*Artículo 7.*– Requisitos.

Serán requisitos exigidos a las personas solicitantes:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategien erregistroan nekazaritza ustiategi baten titular legez izena emanda egotea.

b) Nekazaritzako sozietate kooperatibo batean eskubide osoarekin bazkide moduan 2006ko abuztuaren 1etik eta 2007ko irailaren 15era bitartean sartzea, bi egun horiek ere barne direla.

c) Bazkide izaten hasi zenetik bazkide gisa 3 urte gutxienez irautea, bazkide izatea galtzeak ekarpena -diruz lagundutako kopurua behintzat- galtzea dakarren kasuetan izan ezik.

d) Nekazaritza-jarduera garatzen 5 urte baino gehiago ez eramatea.

*8. artikulua.–* Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak mila eta bostehun (1.500) euroko diru-laguntza eman ahal izango du.

2.– Lan-bizitzan sartzerakoan duen egoeraren arabera, diru kopuru horrek (300) eurora arteko igoera izango du hurrengo idatz-zatietan aipatutako kontzeptuetako bakoitzerako, eta metatu ahal izango da:

a) Emakumea izatea.

b) Minusbaliatua izatea, hau da, urritu fisiko, psikiko edo/eta sentsoriala izatea eta, gutxienez, % 45eko ezintasuna onartuta edukitzea.

c) Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak espetxeei buruz izenpetutako hitzarmena gogoan, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-kooperatibetan bazkide gisa sartutako hirugarren graduko presoak eta baldintzapean aske utzitakoak izatea.

d) Guraso bakarreko aita edo ama izatea, hau da, ordaindutako jarduerarik egiten ez duten seme-alaba bat edo batzuk haren mende izatea.

e) Genero-indarkeriaren biktima izan diren pertsonak, eta egoera horretan daudela kontuan hartuko da haiek eta haien seme-alabek indarkeria fisiko edo psikikoaren biktima izan badira, ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana dela medio modu egonkorrean harekin lotuta egon den edo lotuta dagoen pertsonak eragindakoa bada, betiere gertakari horiek genero-indarkeriaren biktimak babesteko aginduarekin egiaztatu badira, edo ministerio fiskalaren txostenaren bidez, non jasota dagoen zantzuen arabera salatzailea genero-indarkeriaren biktima dela genero-indarkeriako gertakariek eragindako babesteko agindua edo kondena-epaia ematen den bitartean.

f) Gizarteratze- eta laneratze-prozesua laneratze-enpresa batean bukatu dutenak abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuan araututakoak; horren arabera la-

a) Estar inscrita como titular de una explotación agraria en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Adquirir la condición de persona socia de pleno derecho en una Sociedad Cooperativa agraria, entre los días 1 de agosto de 2006 y 15 de septiembre de 2007, ambos incluidos.

c) Permanecer como persona socia durante un período mínimo de 3 años desde que adquirió tal condición, salvo aquellos supuestos en los que la pérdida de la condición de persona socia den lugar a la perdida de la aportación, al menos en la cantidad subvencionada.

d) No llevar desarrollando la actividad agraria durante más de 5 años.

*Artículo 8.–* Cuantía de las subvenciones.

1.– El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social concederá una subvención de mil quinientos (1.500) euros.

2.– Atendiendo a las circunstancias de su integración en la vida laboral, la cantidad anterior, se incrementará en (300) euros por causa de cada uno de los conceptos señalados en los apartados siguientes, pudiendo tener un carácter acumulativo:

a) Ser mujer.

b) Tener la condición de persona discapacitada, entendiendo como tal a aquella persona que esté afectada por deficiencias físicas, psíquicas y/o sensoriales, y reconocida una minusvalía, como mínimo, del 45%.

c) En atención al Convenio Marco entre el Gobierno Vasco y el Ministerio de Justicia en materia penitenciaria, tener la condición de personas internas en tercer grado y de personas liberadas condicionales que se incorporen como personas socias a cooperativas agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) El padre o la madre de una familia monoparental, entendiéndose por tal aquella persona que tenga a su cargo uno o varios hijos y/o una o varias hijas que no desempeñen actividad retribuida.

e) Personas que hayan sido víctimas de violencia de género, entendiéndose que se encuentran en esta situación cuando éstas o sus hijos y/o hijas hayan sido víctimas de violencia física o psíquica, ejercida por la persona cónyuge o por la persona que esté o haya estado ligado a ella de forma estable por análoga relación de afectividad, siempre que estos hechos hayan sido acreditados con la correspondiente Orden de protección de las víctimas de la violencia de género, informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de que la persona denunciante es víctima de violencia de género en tanto se dicta la orden de protección, o sentencia condenatoria por hechos constitutivos de violencia de género.

f) Personas que hayan finalizado su proceso de inserción socio-laboral en una empresa de inserción, reguladas en el Decreto 305/2000, de 26 de diciembre, por

neratze-enpresen kalifikazioa arautzen da, horietara sartzeko prozedura ezartzen da eta laneratze-enpresen erregistroa sortzen da, sozietate kooperatiborako sartze hori prozesu amaitu ondorengo lehen hamabi hilabeteen barruan gertatzen bada.

g) Terrorismo-ekintzen biktimak izan diren pertsonak, irailaren 24ko 214/2002 Dekretuko III. kapituluko II. tituluak horien laneratzea sustatzeko ezarritakoaren arabera -dekretu horrek arautzen du terrorismoaren biktimei laguntzeko programa-, eta terrorismo-ekintzen biktimen seme-alabak eta ezkontideak, biktima hori hil bada edo ordaindutako jarduera egitea galarazten dion ezintasuna badu.

h) Toxikomano ohiak (alkoholiko eta drogazale ohiak), hau da, Agindu honetan aurreikusten diren laguntzen ondorioetarako, lan-talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio- eta desohitze-faseak gaindituta etengabeko tratamenduan sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonak, lanaren bitartez gizarteratzeko programa batean sartzea interesgarritzat jotzen bada.

3.– Emandako diru-laguntzak ezin izango du, inola ere, onuradunak dagokion nekazaritza-kooperatiban bazkide gisa sartzeko unean harpidetutako kapitalaren % 50 gainditu.

4.– Lanaldi partzialeko dedikazioaren kasuan, ezin izango da artikulu honetako aurreko idatz-zatietan aurreikusitako irizpideen eta mugen arabera kalkulatutako diru-laguntzaren % 50 baino gehiago eman.

*9. artikulua.–* Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan arautزtako diru-laguntzak bateragarriak dira arrazoi eta xede beragatik administrazio edo erakunde publiko horiek edo beste batzuek ematen dituzten bestelako laguntzekin. Edonola ere, diru-laguntzen zenbatekoa ez da agindu honetako 8. artikuluan aurreikusitako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa izango.

2.– Agindu honen bidez lortutako laguntzak beste administrazio edo erakunde publikok xede eta helburu berarekin emandakoekin batera jasotzen baditu onuradunak, eta laguntza horiek guztiak batuta agindu honetako 8. artikuluan aurreikusitako gehienezko zenbatekoa, gainditzen bada, gaindikin hori bateraezina dela adieraziko da, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eman beharreko laguntza gutxitu egingo da.

3. ATALA
XEDAPEN ERKIDEAK

*10. artikulua.–* Diru-laguntza publikoen arloko obligazioak betetzea.

el que se regula la calificación de las empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y se crea el registro de empresas de inserción, siempre que la incorporación a la sociedad cooperativa agraria se produzca dentro de los doce meses posteriores a la finalización del mencionado proceso.

g) Personas que hayan sido víctimas de actos de terrorismo, en los términos que a los efectos de fomentar su inserción laboral establece el Capítulo III Título II del Decreto 214/2002, de 24 de septiembre, por el que se regula el Programa de Ayudas a las Víctimas del Terrorismo, así como los hijos e hijas y la persona cónyuge de una víctima de acto terrorista cuando ésta hubiere fallecido o resultara en situación de invalidez que le impidiese el desempeño de una actividad retribuida.

h) Personas extoxicómanas (exalcohólicas y exdrogadictas), considerando como tales a los efectos de las ayudas previstas en esta Orden a aquéllas que, habiendo superado a juicio del equipo terapéutico correspondiente las fases de desintoxicación y deshabituación y llevando más de seis meses de tratamiento continuado, se considere de interés su adscripción a un programa de reinserción social a través del trabajo.

3.– En ningún caso la subvención otorgada podrá sobrepasar el 50% del capital suscrito por la persona beneficiaria en el momento de su incorporación como persona socia en la sociedad cooperativa agraria correspondiente.

4.– En el supuesto de dedicación a tiempo parcial no se podrá otorgar más del 50% de la subvención calculada de acuerdo a los criterios y límite previstos en los apartados anteriores del presente artículo.

*Artículo 9.–* Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1.– Las subvenciones reguladas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, con el mismo objeto y finalidad, pudieran ser otorgadas por esta u otras Administraciones o Entes públicos. En cualquier caso el importe de las subvenciones no podrá superar los importes máximos previstos en el artículo 8 de esta Orden.

2.– Cuando las ayudas de la presente Orden concurran con cualesquiera otras que por el mismo motivo y finalidad perciba la persona beneficiaria de esta u otras Administraciones o Entes públicos, si la suma de las mismas superare los importes máximos previstos en el artículo 8 de esta Orden, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la ayuda a conceder por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

SECCIÓN 3.ª
DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 10.–* Cumplimiento de obligaciones en materia de subvenciones públicas.

1.– Agindu honetako 1.b artikuluak aipatzen dituen agindu honetako 2. atalean erregulatutako laguntzei dagokienez, horiek eman eta ordaintzeko ezinbesteko baldintza izango da eskatzaileek -Ogasun eta Herri Administrazio Sailak xedatzen duenari jarraiki- zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatzea.

2.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunei laguntzak eman, eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzefasean dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzea.

3.– Honako erakunde hauek ezin izango dute deialdi hau baliatu: diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapena dutenaK, eta horretarako desgaitzen duen legezko debekuren baten pean daudenak.

*11. artikulua.–* Onuradunen betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharretan aplikagarri gertatzen direnak betetzeaz gain, diru-laguntzen onuradunek honako betebehar hauek bete behar dituzte:

a) Diru-laguntzaren onuradunak bazkide gisa sartu zen enpresan segitzen duela egiaztatu beharko du bazkide izaeraz jabetu zenetik hasi eta hiru urteren buruan. Horretarako, izaera hori lortu eta ondorengo hiru hilabeteko epearen barruan enpresan segitzen duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

b) Aldi berean, onuradunak hasiera batean egindako ekarriari eusten diola egiaztatu beharko du, eta aurreko idatz-zatian ezarrita dagoen epearen barruan hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Egin beharreko ekarriaren zenbatekoa onuradunak berak nahita gutxituz gero, diru-laguntza ematearen aldeko ebazpena aldatu egingo da.

c) Diru-laguntzen norakoa eta aplikazioa bermatzea zerrenda bidezko bermeen bitartez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera; dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen araubide orokorra, eta diru-laguntza horien kudeaketan esku hartzen duten erakunde kolaboratzaileen betekizun, erregimen eta eginbeharrak ezarri ziren.

1.– En el caso de las ayudas a que se refiere el artículo 1.b, reguladas en la Sección 2.ª de esta Orden, la concesión y el pago de las citadas ayudas quedarán condicionados a la acreditación por parte de las personas solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de conformidad con lo que al efecto disponga el Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como a la acreditación del cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

2.– La concesión y, en su caso, el pago a las personas beneficiarias de las ayudas previstas en la presente Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– No podrán concurrir a la presente convocatoria las entidades que se encuentren sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni las que se hallen incursas en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello.

*Artículo 11.–* Obligaciones de las personas beneficiarias.

Sin perjuicio de las obligaciones señaladas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, que en su caso resulten aplicables, las personas beneficiarias de las ayudas quedarán obligadas a:

a) Cuando se cumplan los tres años desde que adquirió la condición de persona socia, la persona beneficiaria de la subvención deberá justificar su permanencia como tal en la Entidad a la que se incorporó. A tal efecto, en el plazo de tres meses desde que se cumplió tal condición, deberá remitir certificado acreditativo de dicha permanencia.

b) Al mismo tiempo la persona beneficiaria deberá justificar el mantenimiento de la aportación inicial, debiendo remitir, en el mismo plazo establecido en el apartado anterior, certificado acreditativo de tal circunstancia. Si se hubiera producido una disminución voluntaria de la misma se procederá a la modificación de la Resolución de concesión de la subvención.

c) Garantizar el destino y aplicación mediante garantías relacionales, conforme a lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

*12. artikulua.–* Eskaerak aurkeztea: lekua eta epea.

1.– Diru-laguntzen eskaerak eskatzailea bazkide gisa sartzen den sozietatearen egoitza edo lantokia dagoen lurralde historikoan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak duen ordezkaritzan aurkeztu behar dira eskaerak, edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz.

2.– Eskaerak aurkezteko epea 2007ko irailaren 15ean bukatuko da.

3.– Onuradunek eskaera aurkezterakoan egiaztatu beharko da eskakizun guztiak betetzen dituztela.

*13. artikulua.–* Beharrezko dokumentazioa.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzetarako eskaerak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren lurralde ordezkaritzetan eskura daitezke, eta eskaera-orri normalizatuan egin behar dira. Era berean, Interneteko www.juslan.ejgv.euskadi.net helbidetik ere deskarga daitezke eskaerak. Eskaerekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatuta.

b) NANaren edo antzeko dokumentuaren bi kopia, betiere ofizialki egiaztatzen badu eskatzailearen nortasuna.

c) Bazkide-izaera egiaztatu behar da, administrazio-organoaren erabakiari buruzko ziurtagiriaren bidez, behin-betiko eskubide osoko bazkide-izaera zein datatan hartzen duen zehaztuz.

Era berean, enpresaratutako pertsona minusbaliatua bada, administrazio-organoaren ziurtagiriak gizarte-ekonomiako erakundea egiaztatutako enpleguko zentro berezia dela adieraziko du.

d) Sozietatearen ziurtagiria, bazkide berria sartzerakoan erakunde hori osatzen duten langile-bazkideen edo lan-bazkideen kopurua egiaztatzen duena.

e) Enpresaratzen den sozietateak emandako ziurtagiria, eskatzaileak harpidetutako kapitalari buruzkoa enpresa bazkide gisa sartu den unean. Ziurtagiri horrek sarrera-kuotari eta hasierako ekarpenari buruzko dirukopuruak banakatu beharko ditu, kasuak kasu.

f) Dagokion enplegu-zerbitzu publikoak egindako ziurtagiria, lanean hasitako pertsonak langabezian zenbat denbora daraman egiaztatzen duena.

*Artículo 12.–* Presentación de solicitudes: lugar y plazo.

1.– Las solicitudes de subvenciones se presentarán ante la Delegación Territorial del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, correspondiente al Territorio Histórico del domicilio social o, en su caso, del centro de trabajo de la Sociedad a la que se incorpore como persona socia la persona solicitante, o a través de cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El plazo para la presentación de solicitudes finalizará el 15 de septiembre de 2007.

3.– Los requisitos por parte de las personas beneficiarias deberán acreditarse en el momento de la presentación de la solicitud de ayudas.

*Artículo 13.–* Documentación preceptiva.

Las solicitudes de las ayudas previstas en esta Orden, se formalizarán en instancias normalizadas que se facilitarán en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, o que podrán descargarse en la dirección de Internet www.juslan.ejgv.euskadi.net, a la que deberá acompañarse la siguiente documentación:

a) Ficha de Alta de Datos de persona tercera interesada, firmada y sellada por la persona solicitante y por la Entidad bancaria correspondiente.

b) 2 Copias del DNI o documento análogo que acredite oficialmente la personalidad de la persona solicitante.

c) Acreditación de la condición de persona socia mediante la certificación correspondiente del acuerdo del Órgano de Administración en la que se determine la fecha en la que adquiere la condición de persona socia de pleno derecho de duración indefinida.

